


## MANRESAKO PLANOAN KOKATUTAKO GUNEAK

## ZER DAGO LOIOLAKO SAN IGNAZIOREN KOBAN?



## NOR ZEN IGNAZIO LOIOLAKOA?



Eneko Loinaz edo Íñigo López de Recalde nobleziako familia batean jaio zen. Euskal Herriko Azpeitiko herrian jaio zen 1491 urtean. Arévalo-n ikasi zuen (Ávila) eta Gaztelako erregeen zerbitzura jarri zen. Diplomatikoa eta militar ona izan zen baina larriki zauritu zuten hanka batean Iruñeko setioan. Zauriak sendatzen zitzaizkion bitartean eta bere irakurketen ondorioz, bizitza guztiz aldatzea erabaki zuen eta erromes bezala Jerusalemara bidean jarri zen. Bartzelonako portutik irteteko asmoarekin joan zen.

Bartzelonako bidean Santa Maria de Montserrat monasteriotik pasa zen. Hortik Manresa-ra joan zen eta han egon zen hamaika hilabete, hauek erabakigarriak izan ziren bere eraldaketa espiritualerako. Berak idatzi zuen bezala, hiri honetan esperientzia mistikoa eta espiritualak bizitu zituen eta bere obra nagusia idaztera bultzatu zuten: Gogo jardunak. Azkenik Bartzelonan itsasoratu zen eta Lurralde Santura bidaiatu zen. Itzuleran, ikastea erabaki zuen. Aurrena Bartzelonan eta gero Alcalá de Henares eta Salamanca. Inkisizioak hainbat aldiz espetxeratu zuen eta Parisera joatera erabaki zuen. Ikasketak Parisen jarraitu zituen eta hamar lagunengatik osatu zuen urtebeteko epean Lurralde Santura joan eta misiolari bihurtzeko asmoarekin. Hau posible izango ez balitz, Aita Santuaren aginduetara lan egitea zen bere asmoa. Apaiz ordenatu zuten eta ezin izan zuten Jerusalemara joan, beraz Pablo III Aita Santuaren zerbitzura hasi zen. 1540 urtean Jesusen Konpainia sortu zuten eta Ignazio izendatu zuten nagusi bezala. Nagusia izan zen bere heriotza arte, 1556 urtean, 65 urte zituelarik. 1609 urtean Pablo V Aita Santuak beatifikatu zuen. Eta 1622 urtean santu izendatu zuten.

## ZER EGIN ZUEN?

Manresan izandako esperientzian oinarrituta Gogo jardunak liburua idatzi zuen, liburu hau Janikoaren borondatea aurkitzeko gida bat da, metodoa 30 egun isilean hausnartzen eta meditatzen egotean datza. Aldi honetan norberak bere bizitza berrikusi behar du eta Jesusen bizi-eredua jarraitzea gonbidatzen du, erantzukizuna hartu eta solidaritate praktikatzea. Jesusen Konpainia erlijio-ordena berria sortu zuen. Erlijio-ordena honen botoen artean, obediencia, pobretasuna eta kastitatea botoez gain, Aita Santuarekiko obediencia gehitu zuen. Bi aparteko jardueretan lan egin zuen: irakaskuntza eta misioak, batez ere Amerika eta Asian, txiroenen ondoan. Gaur egun Jesusen Konpainia kide gehien dituen erlijio-ordenetako bat da. Jesuitek hezkuntza zabala dute eta baldintza zail eta anizteta lan egiteko prest daude.



# 1522, IGNAZIO LOIOLAKOA MANRESAN, ZAKUAREN GIZONA



# 1522, IGNAZIO LOIOLAKOA MANRESAN, ZAKUAREN



## 1. MONTSERRAT

Gau osoa lorik egin gabe pasa ondoren, Ignazio Loiolakoak bere jantzi guztiak gizon txiro bati eman zizkion eta Manresa-ra joan zen. Asteartea zen, 1522 urteko martxoak 25.



## 2. DE LA GUIA ERMITA ETA GURUTZEA

De la Guia ermitan erreztzera gelditu zen. Egun hura jaieguna zen eta erromeria ospatzen zen.

## 3. PONT VELL ZUBIA

Pont Vell zubia gurutzatu zuen eta San Marcos kaperaren aurretik pasa zen, erdi-arloan harrisiz inguratutako Manresa hirira igo zen.



## 4. SANTA LLUCÍA OSPITALEA IZANDAKOA

Harresitik kanpo aurkitzen zen Santa Llúcia txiroen ospitalean hartu zuten. Hemen egon zen denbora gehiena txiro eta gaixoak zaintzen laguntzen zuen bitartean. Zaku bat janzen zuen eta oso itxura zabarra zuen. Jendearen artean **ZAKUAREN GIZONA** bezala ezagutzen zuten. Gaur egun bertan aurkitzen da Capella del Rapte (estasiaren kapela).

## 5. LA SEU

La Seu egoitzako liturgia-ofizioetara joaten zer eta bertan Virgen del Alba birjina begiesten zuen. Limosna eskatzen zuen eta txiroen artean banatzen zuen.




## 6. ESTASIAREN KAPERA 7. SAN IGNACIO IKASTETXE OHIA (GAUR EGUNGO MUSEOA)

Santa Llúcia-ko ospitalea eta kapera guda zibilean suntsitu ziren 1936 urtean. Gaur egun bertan aurkitzen da Capella del Rapte edo estasiaren kapera, hau suntsipenaren harriekin eraiki zen. Gaur egungo museoaren atzealdean aurkitzen da San Ignazio ikastetxe ohia.

## ESTASIA

Gau batean, ospitaleren kaperan zorabiatu egin zen eta "Estasi espiritual" bezala ezagutzen da, 8 egun eta 8 gau egon zen geldirik lurrean. Une horretan etorkizuneari zer egiteari buruzko ikuspenak izan zituen.



## 8. KOKA

Askotan meditatu, erreztatu eta idaztera joaten zen Cardener ibaiaren ertzean aurkitzen zen koba natural batetara. Leku hartan aurkitzen da gaur egun La Cova eliza eta espiritualitate-zentroa.



## 9. FRAIDE PREDIKARIEN KOMENTUA

Gaur egungo Sant Domènec plazan fraide dominikarren komentu bat zegoen eta bertan egon zen aste batzuk. Bertan zalantzak eta adore falta jasan zituen eta gaixotu egin zen.

Komentua XIX mendean desagertu zen eta bere lekuan Conservatori antzokia eraiki zuten. San Pedro Mártir eliza 1936 urtean suntsitu zuten guda zibilaren zehar.



## 10. SAN IGNAZIO GAIKO

Los Amigant familia aberats bat zen eta Hospitalet izenarekin ezaguna zen egoitzan gaixoak hartzeko ohitura zuten. Bi aldiz hartu eta zaindu zuten, Canyelles familiak ere gauza bera egin zuen beren Sobrerroca, 30. kaleko etxean.

Hospitalet egoitza hau gaur egungo Capella de Sant Ignasi Malatí (San Ignazio gaixo kapera) da eta del Carmen elizaren eskalieren amaieran aurkitzen da Major plaza nagusitik gertu.



## 11. SANTA CLARA KOMENTUA, CREU DE LA CULLA GURUTZEA 12. VILADORDIS 13. SAN PABLO PRIORETZA

Viladordis-era joan oi zen. Bidean Santa Clara monasterioaren aurrean eseri ohi zen monjeen kantauk entzuteko eta gero, errege-bidea jarraitzen zuen Creu de la Culla gurutzetara. Viladordis-eko De la Salut elizara joaten zen eta bertan erreztatzen eta meditatzen zuen, gau osoak pasatzen zituelarik erreguak egiten.

Bestetan Cardener ibaiaren ertzean aurkitzen den San Pablo, zisterarren prioretzara joaten zen. Priorea Santa Llúcia ospitaleko arduraduna zen eta Ignazioren irakaslea ere izan zen.



## 14. ARGIAREN PUTZUA | CARDENER-EKO ILUSTRAZIO OSPETSUA

San Pablo-ra bidean, "Eximia ilustración del Cardener" izeneko gertaera eman zen. Berak azaldu zuen bezala, adimena naturaz gaundiko eran argitu zitzaion, honen ondorioz gauza asko ulertu zituen eta jarraitu behar zuen bidea behin betiko aurkitzen lagundu zion. Gertaera hau segurki "Pou de la Llum" izeneko argiaren putzuan gertatu zen, Creu del Tort gurutzetik gertu, gertaera hau eta gero gurutzera joan zen eskertzera.



## 15. DEL TORT ETXEA ETA GURUTZEA

Muga-gurutze honen ondoan aurkitzen zen etxean hartzen zuten askotan eta oraindik haren aurkitzen den katiluan salda beroa ematen zioten. Ignazio Loiolakoa Manresa-tik irten zen, **Les Marcetes** basoa zeharkatuz **Pont de Vilomara-ra** 1523 urteko martxoaren hasieran.



## 16. OILOAREN PUTZUA

**LEGENDA**  
Sobrerroca kalean putzu bat dago, 1602 urtean olio bat bertan erori eta ito egin omen zen. Oila zaintzen zuen neskatxa ikaratu egin zen bere amaordeak izango zuen erantzunarekin eta San Inaziori olio berpizteko eskatu zion. Tradizioak dionaren arabera, berpiztu ere egin zuten.